




Hizkuntz gatazka eta EHren baketzea



Ander Gilenea

Ari nintzen, ari, ideia batzuk bildu eta lotzen buruan, tituluak dioen gaiaren ildotik, eta horra non aurkitu dudan **elkarri** aldizkariaren 28. zenbakian, "Hitz eta Pitz" sailean, honako esaldi hau, J.M. San Sebastian "Latxaga"ren idazkiren batetik jasoa: "El euskera nos dice que convivir entre vascos es difícil".

Esaldia, dagoenetan irakurrita, nahikoa ulerkaitez da, euskarak horrelakorik esaten ez digulako, esanarazten ez badiogu. Badakit testuingurutik aterata dagoela, eta ondo ulertzeko testuinguru eta guzti irakurri beharko litzatekeela. Baina horrelako "ateraldiak" bere inguruntetik ateratzean betetzen dute nonbait beren egitekoa: irakurle minbera astindu eta horren gogoetari eragitea. Horrelaxe da adierazgarria esaldia, testuingurutik aterata.

Utz dezagun, ordea, aipamen soila besterik ez den hori, eta goazen nik hemen mahairatu nahiko nukeen gaiaren muinera eta gogoetaren ildora. Aspaldixotik dugu hartua Karlos Santamaria Elkargunean jardunaldi berezia antolatzeko "Euskarta eta EHren bakegintza" gaiari buruz. Gaiak berak merezi duela uste dut, hizkuntzaren inguruan dugun gatazkari

sakon-sakonetik helduz. Gatazka eta borroka kontzeptu oso erabiliak dituzte hizkuntza minorizatuen aztertzaleek; gogoratu besterik ez dago gure hizkuntz egoerari buruz argitaraturiko liburuon tituluak: Luis Núñez, *Opresión y defensa del euskera* (1977), *Euskaltzaindiaren Hizkuntz borroka* Euskal Herrian (1979), *Eusko Jaurlaritzaren Euskararen borroka* (1983) —lehenxeago Jakin-ek titulu berberaz argitaraturiko azterketa. Eta gure herritik kanpo argitaratutakoak: *Conflicto Lingüístico e ideología en Galicia* (1980), *El conflicto lingüístico en Cataluña: Historia y presente* (1981).

Hizkuntzaren artekoa al da gatazka? Pasaian ospatu berria den Kilometroak 97 ekitaldiak honako slogan polita zuen goiburutzat: "euskarak ez du ezer arrotz"... Egia esan, euskarak beste edozein hizkuntzak bezala gauza bakarra du arrotz: erdara. Horixe esan nahi baitu funtsean erdarak: arrotza! Horregatik ikasten ditugu erdarak, hizkuntz ezberdintasunak dakarkigun arrotzaren gainditzeko. Arabierazko halako esaera hura gogoratzen dut: Kullu lins-n, ins-n! Hots, ikasten dugun hizkuntza berri bakoitzeko gizon-emakume berriak —mintzabide berriak, adiskide berriak— aurkitzen ditugula. Hizkuntza komunikaziorako baliabidea baita funtsean.

Erdara ez da berez etsai, baina etsai, inkomunikazio-hesi, arrotzaren leize eta gatazkarako su bihur-

tzen da, hizkuntz politikak direla tarteko, Louis-Jean Calvet-en liburuaren tituluak adierazten duenez: *La guerre des langues et les politiques linguistiques*. (1987). Alferrik da EHko hizkuntz gatazka ukatzea, hortxe baitago hori, hizkuntzen arteko desoreka eragin duen ezarpen-politika historikoaren eraginez, besteak beste. Baina gatazka ez dute piztu euskarak, ez hori berreskuratzeko ahalegin sozialak, erdara ezartzeko jokabide gailentzaleak eta euskararekiko jarrera itxiek baino.

Euskal Herri osoan euskararen ofizialtasuna onartuz eta horren normalkuntzarako plangintza orokor eta eraginkorren gain, arabierazko esaeraren espiritua piztu behar da: herritar guztiak euskaldun —elebidun— bihurtuz, hizkuntzako komunikazioan oinarrituriko komunitatea, arrotzik gabeta, eraikitzeko. Hemengo gatazkaren adierazgarri lazgarria da euskararen murriztapen-egoera, eta EHren bakebidean funtsezko urratsa litzateke horren berreskurapen osoa.

